

Zaintzaren filosofia

Maite Arraiza Zabalegi

*Filosofian doktorea, Nafarroako Unibertsitate Publikoko
Soziologia eta Gizarte Lana Saileko irakaslea eta
militante feminista*

Izenburuak berak tradizionalki dikotomikoki ulertu eta eraiki dena elkarlotu eta uztartu egiten du: zaintzaren esparrua, emozioekin lotura duena eta historikoki emakumeoi egotzia izan zaiguna, eta filosofiaren, pentsamenduaren esparrua, historikoki gizonezkoek beraiena bihurtu dutena, baina inoiz beraiena bakarrik izan ez dena. Testu honetan, ikuspegi kritiko feminista batetik, zaintzen krisiaren nondik norako nagusiak azaldu eta zaintzaren gaiak duen garrantzia mahaigaineratzen saiatuko gara. Horretarako, zaintzaren definizio edo hurbilketa kontzeptual ezberdinak eskainiko ditugu. Azkenik, zaintzak filosofiari egiten dizkion zenbait ekarpen plazaratuko ditugu, bai edukiari dagokionez, bai pentsamendua eraikitzeko moduari dagokionez.

Zaintzen krisia: zaintzen feminizazio, arrazializazio eta prekarizazioa

Aski ezaguna zaigun bezala, garai birikoetan bizi gara. Bizitza zuri hegemonikoa eta berorrek denbora luzez mehatxatutako bizitza arriskuan jarri duen pandemia berriaren izena COVID-19 da. COVID-19ak bizi dugun krisi sistemikoa agerian jarri eta azpimarratu du. Krisi hori anizkoitza da:

ingurumenekoa, soziala, politikoa, ekonomikoa, sistema heteropatriarkal kapitalista neoliberal kolonialista kapazitis-taren krisia, zaintzen krisia. Pandemia hori 'zaintzen krisia koronabirus forman' izenarekin birformula genezake. Izan ere, zaintzen krisi estruktural eta sistemikoa presente zegoen pandemia horren agerpena baino askozaz lehenagotik, eta gurutzatzen diren aipatutako kolapsoen erroa zaintzagabezia da. Heteropatriarkatu kapitalista neoliberalak zaintzak de-baluatzen, ikusezin bihurtzen, pobretzen, arrazializatzen eta feminizatzen ditu eta, aldi berean, merkantilizatu eta klase dirudunarentzako eskuragarria den zerbait bihurtu. Ez da kasualitatea, esaterako, 2020ko maiatzean, SARS-CoV-2ak kutsatutako konfirmatutako kasu kopuru handiena zuten herrialdeak –Estatu Batuak, Errusia, Brasil eta Erresuma Batua– lehendakari ultraeskuindar eta misogino, homobofo eta transfoboek gobernatuta egotea.

Zaintza/zaintzea emakumeoi* egotzia izan zaigula-eta, praxi eta pentsamendu feministaren kezka eta gai nagusietakoa da. Lan horien izaera edo kondizio feminizatua eta arrazializatua dela-eta, eta 'lan inproduktibo' kontsideratu direlako, zaintzak ikusezin bihurtu eta debaluatu izan dira, ebidentzetat eta egintzat jo dira, eta, autore askok azpimarratu duten bezala –besteak beste, Silvia Federicik (2012), Yayo Herrerok (2016), Amaia Pérez Orozcok (2014) edo Maria Puig de la Bellacasak (2017)–, gutxietsiak eta desberdinki banatuak izaten jarraitzen dute, asimetria ekonomiko eta botere asimetria handiak inplikatur. Nazio Batuen Erakundearen arabera (2018), emakumeek* munduko lan ordaindu gabearen hiru laurden baino gehiago burutzen dute.

Mundu osoan emakumeek* doan egiten duten zaintza lan eskergaz gain, bereziki larria da soldatapeko etxeko langileen kasua, gehienak emakume* migratuak. Carolina Elíasek, soldatapeko etxeko langile ohi, abokatu eta Servicio Doméstico Activo elkartearen lehendakariak, Espainiako Estatuko langileon egoera «eskubiderik gabeko esklabotza» bezala definitzen du (Elías 2021). Sintesi hori aplikagarria zaio estatu anizkoiztasun

bati, batez ere Mendebaldean. Soldatapeko barneko langileen egoera Donna Harawayren hitzak erabiliz izenda genezake: «gauza eskandalagarri hori» (Haraway 1991: 197): 12-16 ordu bitarteko lanaldiak, hilabetean 600 euroren truke gehi janaria (Elías 2021). Berdin *kelly*-en (pisu zerbitzari edo hotel garbitzaileen) lan baldintzak, horien kontratu prekarioak, soldata eskasak, maratoi lanaldiak eta jasotzen duten tratu iraingarria.

Zaintzen feminizazio eta arrazializazioari publikoaren pribatizazioarako eta komun eta demokratikoaren eraispenerako

kapitalismo neoliberalaren joera sakona gehitu behar zaio, desberdinkeria sozialak larriki handitzen dituena. Ospitaleen, adinekoen erresidentzien, aniztasun funtzionaldun pertsonen zentroyen eta abarren pribatizazioak baldintza sozial eta materialen prekarizazioa du ondorio, hau da, zaintzen prekarizazioa, bai zaintzen dutenen ikuspegitik, bai zaintzak jasotzen dituztenen ikuspegitik. Zer esanik ez kale gorrian edo pobrezian, kartzelan edo mi-

gratzaileen atxilotze zentroetan, paperik gabe eta abar dagoen jendearen egoera. Neoliberalismoaren joera prekarizatzaile horrek hamarkadak daramatzen arren, The Care Collective-k *The Care Manifesto. The Politics of Interdependence* liburuan nabarmentzen duen bezala, «pandemiak dramatikoki agerian utzi du merkatu neoliberalak burututako indarkeria, gutako gehienak zaintzeko eta zainduak izateko ezgaiago bihurtu gaituena» (The Care Collective 2020: 4; gure itzulpena).

Ironia historiko perbertso moduko batean aurkitzen gara, aldi berean ikasteko eta eraldaketa sozial sakon baterako aukerak eskaintzen dizkiguna. COVID-19ak are gehiago jarri ditu agerian gure zaugarritasun erradikala eta zaintzaren

Zaintzen feminizazio eta arrazializazioari publikoaren pribatizazioarako eta komun eta demokratikoaren eraispenerako kapitalismo neoliberalaren joera sakona gehitu behar zaio

funtsezko izaera, biak ala biak feminismoek urte luzez modu kementsuan azpimarratutako elementuak. Instituzionalki eta sozialki garbitzaileen, supermerkatuetako kutzazainen, erizainen, medikuen, erresidentzietako langileen eta abarren lana 'lan esentzial' gisa katalogatu da, baina balkoietako txalo amaiezinek eta laudorio instituzionalek ez dute, oro har, pertsonen –batez ere, emakumeen* eta arrazializatutakoen– lan eta bizi baldintzen hobekuntza ekarri. Estatuak hartutako neurriak ez dira nahikoak izan, eta agerian jarri dute logika merkantilista neoliberala eta bere bikote banaezina den individualismo amorratua ez direla zaintzarekin eta bizitzarekin¹ bateragarriak. Hau da, hain zuzen ere, Pérez Orozcok (2014) kapitalaren eta bizitzaren arteko gatazka deritzona, edo, The Care Collectiveren hitzetan (2020: 75), zaintzaren logikaren eta merkatu kapitalistaren logikaren arteko bateraezintasuna.

Eta, hala ere, batez ere Iparralde globalean, zaintza nonahi agertzen zaigu. Hor dugu, esaterako, multinazional handiek egiten duten *carewashing*-a (*ibid.*: 11): hau da, zaintzak erabiltzen dituzte beren eslogan eta marketin kanpainetan, aldaketa klimatikoan eta desberdinkeria sozialen sakontzean duten ekarpen erreala ezkutatzeko; edota zaintzen merkantilizazio eta fetitxizazioa, autozaintzaren eta gure *fitness* fisiko eta mentala hobetzeko beharraren mantra neoliberal individualistaren pean (Puig de la Bellacasa 2017: 9). Eta horrekin ez gara ari kritikatzeko ongizate emozional eta fisikoari laguntzen dioten ariketa fisikoa, meditazioa edota psikoterapia bezalako jarduerak, politikoki ere onurak dituztenak. Aldiz, niaren zaintzaren inflazio-industria da problematizatzen duguna, gutxi batzuentzako bakarrik eskuragarria, zaintzaren/zaintzen ideia eduki politikoz husten duena eta gorputzaren gehiegizko gurtzari eta edertasun eredu heteropatriarkalari banaezinki loturik dagoena. Horiekin batera, berria ez den zaintzaren ideia erredukzionista batek indarra hartu du, are gehiago neofaxismoaren eta ultraeskuinaren gorakadarekin, *besteak* eta *ezberdintasunak* zaintzaren ideiatik kanporatuz, *gutarrak* bakarrik zaintzean datzana. *Zaintzabekeria* horren adibide ditugu Mendebaldeko

migrazio politikak, besteak beste Mediterraneo milaka heriotzak, Moriako kontzentrazio-esparrua edo Estatu Batuetan Erdialdeko Amerikako haurren kartzelaratzeara.

Zaintzaren garrantzia. ‘Zaintza/zaintzeari’ hurbilpen etiko-politiko

Judith Butlerrek bi prekaritate mota bereizten ditu: existentziala, gutxi gorabehera homogenea eta gorputz ez-gizatiar makina batekin konpartitua; eta politikoa, prekaritate existentzialaren gainean giza ekintzek sortu eta inposatzen dutena, eta oso desorekatua dena (Butler 2015: 117). Butlerrek berak (2009), Chris J. Cuomok (1998), Harawayk (2003, 2016a), Herrerok (2016), Pérez Orozcok (2014), Puig de la Bellacasak (2017) eta beste askok nabarmendu bezala, gure elkarrekiko mendekotasun eta erlazionalitate konstitutiboa direla-eta, gorputz eta subjektibotasun prekario eta zaurgarriak gara, eta horregatik dugu zaintzaren beharra. Zaintzeak gure zaurgarritasun eta elkarrekiko mendekotasuna besarkatzea dakar, zeinetatik bakarrik sortzen diren ezinbestean autonomia, independentzia eta askatasun forma ezberdinak.

Puig de la Bellacasa, *Matters of Care. Speculative Ethics in More than Human Worlds* liburuan, Berenice Fisher eta Joan Trontok ‘Toward a Feminist Theory of Caring’ artikuluan eskaintzen duten zaintzen definiziotik abiatzen da:

‘Gure mundua’ hau da, geure gorputzak, geure buruak eta geure ingurumena, mantendu, iraunarazi eta erreparatzeko egiten dugun guztia, bertan ahalik eta hobekien bizi ahal izateko, aipatu elementuak bizitza sostengatzen duen sare konplexu batean ehotzen saiatuz. (Fisher eta Tronto 1990: 40; gure itzulpena, arinki eraldatua).

Hortik, Puig de la Bellacasak zaintzaren nozio tridimensional bat lantzen du: lana/eginkizuna, afektua/afekzioak eta etika/politika. Zaintzak/zaintzeak hiru dimentsio horiek inplikatzen ditu beti, nahiz eta ez beti neurri eta intentsitate berean, eta ez kontraesan eta tentsiorik gabe (Puig de la Bellacasa 2017: 65). Zaintzea ez da beti zerbait eroso, erraz eta atsegina.

Zaintzek barne biltzen duten dimentsio afektiboak logika merkantilistarekin talka egiten du, kuantifikagarria ez delako eta zaintzek sortzen duten hazkunde eta garapena ez direlako nahitaez esponentzialak, ezta estentsiboak ere: zaintzak bizi eta heriotza zikloak inplikatzeko, hala nola konpromisoen, loturen, esanahien eta harremanen sendotze eta biziagotzea.

Modu honetan, Puig de la Bellacasak nabarmentzen duenez, zaintza, maxima moral bat izatetik urrun, testuinguruarren, momentuaren eta inplikaturiko harreman eta gorputzen arabera modu ezberdinean azaleratzen eta aktibatzen da. Eta horrek, ezinbestean, gure ezberdintasun erradikalen errekonozimendua eta «nola egin?» galderak sorrarazten duen kuriositatearekiko etengabeko konpromisoa barne biltzen ditu (*ibid.*: 90). Izan ere, Butlerrek (2005: 39-43), Harawayk (2003: 50) eta Puig de la Bellacasak berak (2017: 117, 198) adierazi bezala, gure erlazionalitate konstitutiboak norbere burua eta besteak erabat ezagutzeko ezintasuna inplikatzeko, eta, ondorioz, zer edota nor, eta nola, ari diren harremanean

Zaintzea ez da beti
zerbait eroso, erraz
eta atsegina. Zaintzek
barnebiltzen duten
dimentsio afektiboak
logika merkantilistarekin
talka egiten du

azaleratzen eta zeri edota nori, eta nola, eragin diezaiekegun etengabe galdetzeko beharra, nahiz eta jakin galdera horiek ez dutela erantzun ez amaitu ez behin betiko bat ere. Baina preseski horrek berak azpimarratzen du zaintzaren balioa. Zaintzaren espezifikotasunak normatibitatea eta substantibitatea alboratzen ditu; bere

botere eraldatzailea, hain zuzen ere, «nola zaindu?» galdera beti irekia mantentzeko beharretik eratortzen da.

Puig de la Bellacasaren arabera, zaintza ezaugarritzen duen beste elementu bat hau da, «distantzia egokian kokatzearekin» zerikusia duela (*ibid.*: 5). Hau da, batzuetan, zaintzeak intimitate fisiko eta afektibo handia inplikatzeko, ondoan egote etengabe bat eta hurbileko laguntza edota

asistentzia-lan handia; besteetan, berriz, errespetuz eta muturra ez sartuz, distantzia aski handia, gorputz eta komunitate ekologikoak lora daitezzen. Zentzu horretan, posizionamendu antropozentrikoetatik urrun, garrantzitsua da gogoratzea ez garela munduaren arduradun (Haraway 1991: 199), ez planetak, ezta bertan bizi diren gorputzek ere, ez baikaituzte behar, ez existitzeko, ezta loratzeko ere. Planetako komunitate ikaragarri handi eta konplexua osatzen duen *beste kide bat* gehiago baino ez gara, planetako *beste* biztanle *bat*.

Cuomok, hain zuzen ere, komunitatearen ideia komunitate ekologikora zabaltzen du, eta «gizabanako, talde zein komunitateen, banako sentikor ez-gizatiarren, espezieen, komunitate ekologikoen [...] landare bizitzaren eta materia organiko zein inorganikoz osatutako sistemen» loratzearekiko konpromisoa defendatzen du (Cuomo 1998: 63; gure itzulpena, arinki aldatua). Harawayk, Cuomoren loratzearen etikatik (*ethic of flourishing*) abiatuz, «loratze *espezie anizkoitza*» (*multispecies flourishing*) ahalik eta gehien erdiesteko betebeharrak aldarrikatzen du, hau da, espezie anizkoiztasunaren ongizate, hedapen, garapen eta hazkunde mugatuak (Haraway 2003: 54, 2008: 134, 2016a). Mundu kontingente, material eta mugatueta bizi garela-eta, zeinetan hiltzea eta desagertzea ere loratzearen parte diren, dena ezin da berdin eta etengabe loratu. Gure ardura loratze horretarako beharrezkoak diren *baldintzekikoa* da (Haraway 2016a: 116). Butlerrek bat egiten du Harawayrekin:

Gure betebeharrak preseski bizitza posible egiten duten baldintzekiko dira, ez 'bizitzarekiko berarekiko'; edo gure betebeharrak, hobeto esanda, bizitza sostengatzen duen baldintzarik gabe bizitzarik egon ezin delako ideiatik eratoritzen dira, eta baldintza horiek gure erantzukizun politikoaren eta gure erabaki etiko zailenen gaia dira. (Haraway 2009: 23; gure itzulpena)

Zaintzea, beraz, baldintza horiek mantentzea da. Baina, askotan, baldintza horiek zein diren eta nola mantentzen diren erabakitzeak problematikotasun etiko handia inplikatzeko du, nork eta nola hil ala bizi behar duen erabakitzea esan nahi

duelako. Teoria antiespezista jakin batentzat, esaterako, banako sentikor bakar baten ongizatea ekosistemaren gainetik dago.² Harawayk, aldiz, ekosistema batekin amaitzen ari den espezie kanpotar bat gutxitu edo akabatzea zilegi eta arduratsu ikusten du (Haraway 2016b: 235-236).³ Edozein kasutan, zaintzeak, ingurumen mailan, gutxienez, orain nonahikoak diren suntsiketa eta heriotza nabarmenki ez-beharrezkoak eragiteari uztea esan nahi du.

Beste gauza batzuen artean, «seigarren iraungipen masiboa» delakoari (*the sixth mass extinction*) (Ceballos *et al.* 2015, Kolbert 2014), eta berorren aurretiko gure erantzunek *bussiness as usual*-etik, aldaketa klimatikoa 'Aldaketa Klimatikoa S.A.' (*Cambio Climático S.A.*, Buxton eta Hayes 2017) bihurtzetik, edota «konbergentzia katastrofikoetik: militarismoa, neoliberalismoa eta aldaketa klimatikoa» (Parenti 2017: 49) aldendu behar dutela. Horretaz gain, zaintzeak kontuz eta arduraz bizitzea esan nahi du, ingurunearekiko eta planetako gorputz anizkoiztasunarekiko gure loturaz kontziente, kontzientzia horren arabera jokatzuz eta, modu horretan, ekosistemen, bizitokien, zikloen eta berorien baldintza materialen jarraitutasuna eta birsortzea lagunduz. Zaintzaren ideia hori bateraezina da zaintza gestio gisa ulertzen duten eta giza menderakuntza sostengarri bihurtu nahi duten proposamen politiko eta teknozientifikoekin.

The Care Collectivek honela definitzen du zaintza: «jende gehienari [...] aurrera egin eta loratzea ahalbidetzen dioten baldintza politiko, sozial, material eta emozionalak zuzkitzeko gure ahalmen edo gaitasun indibidual eta komun» gisa, izaki bizidunak eta planeta bera ere barne biltzen dituen (The Care Collective 2020: 6; gure itzulpena). Modu honetan, zaintza praxi bat da, denbora, bitartekoak eta baliabideak eskatzen dituen, baina baita gaitasun bat ere, ikas-irakaspenaren bidez eta praxiaren beraren bidez hobetzen dena. Herrerok, proposamen ekofeminista eta ekosozialista batetik (Herrero 2016: 154), eta The Care Collectivek (2020) ikuspegi feminista, *queer*, antiarrazista eta ekosozialista batetik,

zaintzaren izaera zentrala eskala multidimentsional batean kokatzen dute: familia, komunitatea, estatua, ekonomia, nazioartea eta planeta. The Care Collectivek proposatzen dituen «zaintzen duten politikak» (*caring politics*) «zaintza promiskuoaren etika» (*ethics of promiscuous care*) batean sustraitzen dira. Etika horren arabera, «giza eta ez-giza kategoria guztien arteko zaintza forma guztiak aitortu, baloratu eta sustatu behar dira modu berdintsuan, horien beharren edo sostengarritasunaren arabera» (*ibid.*: 40; gure itzulpena).

Zaintzaren ideia promiskuo, tentakular eta multidimentsionalak derrigorrezko amatasuna zalantzan jarri eta familiak, kolektibotasunak eta sostengu afektibo eta bitala artikulatzeko modu desberdinen sorkuntza eta besarkatzea inplikatzeko dituen, familia nuklearrak harago. Hau da, ahizpatasun eta ahaidetasun lateral eta horizontalak jostea, baita gorputz ez-gizatiar materialekin ere, Abya Yalako hamaika komunitatek erakusten diguten bezala, edo Harawayk *Staying with the Trouble. Making Kin in the Chthulucene* (2016a) liburuan aldarrikatu bezala. *Pose* (2018-2021) telesail estatubatuarra, esaterako, 1980ko eta 1990eko hamarkadetako New Yorkeko *drag ball* kultura osatzen zuten LGTBQ pertsona latino eta afroamerikarren hautuzko familia alternatiboak erretratatzeko dituen. Sara Torresek (2021) marko heterosexual eta monogamotik ihes egiten duten lagun maitaleen kultura eta zaintza aldarrikatzen ditu bizimodu gisa. *Mães do Derick* 2020ko film dokumental brasildarra ere lau emakumeren* bizitza erakusten digu, horietako batzuk elkarrekin sexual-afektiboki harremanetan edota bizikide, beste batzuk ez, elkarrekin Derick hezten dutenak. Familia heteronormatibo tradizionalaren bizikidetzak formak gaindituz, afektuak, aliantzak eta zaintzak antolatzen dituen alternatiba gisa eta etxebizitza duin, eskuragarri eta sostengarria erdiesteko zailtasunei erantzuteko, Bartzelonan La Morada etxebizitza kooperatiba feminista eta LGTBQ+ sortu berri da 2021ean, lehenbizikoa Espainiako Estatuan.

Zaintzaren ideia promiskuo, tentakular eta multidimentsionalak emakumeon* zaintzarako berezko gaitasunaren

idea desnaturalizatzea ere inplikatzeko du, hots, zaintzen desfeminizazioa eta lan banaketa sexu-generizatu eta arrazializatuaren amaiera. Guztiok dugu zaintzeko gaitasuna eta zaintzeko erantzukizuna. Eta horrek, aldi berean, zaintza lanen berrartikulazio sistemiko bat inplikatzeko du, zaintzaren desmerkantilizazio, demokratizazio eta birbanaketa justu bat, bai sare komunalen bidez, bai jaiotzetik heriotza bitarteko kalitatezko zaintza sistema publiko doan baten bidez. The Care Collectivek azpimarratu bezala, estatuaren lehen eta azken erantzukizuna zaintza egitura sostengarriak sortu eta mantentzea da (The Care Collective 2020: 59-60). Ekonomia mailan, zaintza erdigunean jartzeak hauxe esan nahi du: zaintzak etekin ekonomikoa ordezkatzeko bizitza antolatzeko oinarritzeko printzipio gisa; horrek, beste gauza askoren artean, aberastasunaren birbanaketa, egitura ekonomikoen publikazio eta komunalizazioa, kontsumitzeko eta ekoizteko moduen eraldaketa eta trantsizio sozioekologikoa barne biltzen ditu.

Zaintzaren filosofia

Zaintzaren filosofiak, filosofia feministaren parte gisa uler dezakegunak, ekarpen desberdin eta nabarmenak egiten dizkio filosofiari. Alde batetik, zaintzaren gaia filosofiaren parte bilakatzen du, zaintzaren garrantzi ontologiko, politiko, etiko eta epistemologikoa aitortuz. Zaintzak modu transbertsal batean duen berebiziko inportantziak agerian jartzen du zaintzaren filosofiaren beharra, garrantzia eta bere ekarpenen onuragarritasun eta gaitasun eraldatzailea. Beste alde batetik, zaintzari buruz gogoeta egin dutenak, oro har, emakumeak* izan direnez, filosofian tradizionalki baztertuak, gutxietsiak edo bigarren mailako kontsideratuak izan diren gorputz eta subjektibotasun horien ekoizpen filosofikoak filosofiaren lehen lerrora ekartzen ditu. Baina ez hori bakarrik; izan ere, zaintzaren gaiak honakoa eragiten du: filosofiak aintzat hartzea zaintza lanetan dihardutenen, zaintzatik baztertuak izan direnen edota zaintza behar bereziak dituztenen –hots, emakumeen*,

gorputz arrazializatu, migratu eta prekarizatu, etxeko sol-datapeko langileen, landa lanetan dihardutenen, aniztasun funtzionaldun eta adineko pertsonen...– kezka, aldarrikapen, ikuspegi eta pentsamenduak, modu horretan, maiz ahaztuak, isilaraziak edo entzun gabeak diren gorputz eta subjektibotasun horien autoritate epistemikoa aitortuz. Eta horrek pentsamendua aberastu eta sendotu egiten du, gaiago, anizkoitzago eta errotuago bilakatzen du.

Baina zaintzaren filosofia *zaintzen* duen filosofia bat ere bada, ez bakarrik posizio ez-hegemonikoetatik ekoizten delako, eta posizio ez-hegemonikoetatik sortzen diren gogoetak bere egiten dituelako, baizik eta pentsamendua ulertu, eraiki eta helarazteko modu ezberdinak ere inplikatzeko dituelako. Esentzialismotik urrun, pentsatzeko modu ezberdin horien jatorria ez dago emakumei* berezkoa zaigun inolako gaitasun edo esentzia biologikotan. Aldiz, elementu ezberdinen elkar eratzearen efektu gisa uler genitzake, geure egoera historiko eta politikoaren, geure kontzeptualizazio eta eraketa diskurtsiboaren ondorio gisa, horiek guztiak, betiere, gorpuztuak direnak. Hain zuzen ere, gure zapalkuntza egoerari, berori eragiten duen sistemari eta sistema horren elementu egituratzaileei erantzuteko eta beroriek irauli eta eraldatzeko nahi eta beharretik sortzen dira. Izan ere, Harawayk (1991) dioskun bezala, ez dago kokaturik ez dagoen pentsamendurik. Horregatik, zaintzen duen filosofia filosofia feminista bat ere bada.

Zaintzen duen filosofia *elkar eratzeko*, *elkar elikatzen*, *elkar bilakatzen* dela dakien pentsamendua da. Pentsamendua kolektiboa dela badakiena, eta izaera kolektibo horren kontzientzia, errekonozimendu eta errespetutik aritzen dena.

Zaintzak modu transbertsal batean duen berebiziko inportantziak agerian jartzen du zaintzaren filosofiaren beharra, garrantzia eta bere ekarpenen onuragarritasun eta gaitasun eraldatzailea

Are gehiago, pentsamendu kolektiboa ustezko pentsamendu indibidual hori baino sendoagoa, errotuagoa eta gaiagoa dela badaki. Zaintzen duen filosofia aldendu egiten da lehian eta norgehiagokan, pertsonalitateari gehiegizko gurtzan eta laudamenean, harropuzkerian eta nartzisismoan oinarritutako pentsamendutik, eta filosofia kolaboratiboari, elkarlanean oinarritutakoari ematen dio balioa. Zaintzen duen filosofiak badaki besteen pentsamenduak aintzat hartzen eta eskertzen. Eta horrek ez dio inolako bikaintasunik, kritikotasunik, sendotasunik eta sakontasunik kentzen. Aldiz, handitu egiten ditu horiek guztiak. *Bestearen* pentsamendua suntsitu edo deuseztatu baino, pentsamendua hobetzea du helburu. Eta horrek ez du inpliketzen derrigor argudiaketaren indarra, irmotasuna eta zorroztasuna galdu edo gutxitzea, are gutxiago erabat baztergarri eta kaltegarriak diren pentsamendu eta pentsatzeko moduen kontra argudiatzeko. Zaintza ere hori badelako. Zaintzen duen filosofia pentsamenduaren ondorio eta efektuez kezkatzen da, baita pentsamenduak berak sortzen dituen bazterketa eta zapalkuntzez, eta beroriek errebisatzeko eta eraldatzeko konpromisoa eta ardura du. Zaintzen duen filosofia Harawayren *response-ability* (2016a) kontzeptutik elikatzen da, hau da, momentuko arazoei erantzuteko gaitasuna eta abilezia du, eta bere gain ardura hartzen du. Hortik bere botere eraldatzailea. 🌸

Oharrak

1. Bizitzaz ari garenean, ez gara bizitza gauza guztien gainetik kokatzen duten diskurtso moralista eta demagogoen zentzuan ari, baizik eta bizitza duinaz, bizitzea merezi duen bizitzaz, kitxuaz *sumak kawsay* esaten dioten horretaz: 'bizitza osoa edo asebeta', oro har, 'bizitza edo biziera ona' bezala itzuli dena.
2. Ikus Faria (2016, 2017), Horta (2010, 2015), Paez (2015).
3. Ideia horretan oinarritutako politikak munduko toki askotan ari dira aurrera eramaten; Euskal Herrian, esaterako, amerikar bisoiarekin eta Hego Amerikatik datorren koipuearekin.

Bibliografia

- Butler, J. (2005): *Giving an Account of Oneself*, New York, Fordham University Press.
- (2009): *Frames of War. When Is Life Grievable?*, Londres eta New York, Verso.
- (2015): *Notes Toward a Performative Theory of Assembly*, Cambridge, Harvard University Press.
- Buxton, N.; Hayes, B. (argk.) (2017): *Cambio Climático S.A. Cómo el poder [corporativo y militar] está moldeando un mundo de privilegiados y desposeídos ante la crisis climática*, Madril, FUEM Ecosocial.
- Ceballos, G.; Ehrlich, P. R.; Barnosky, A. D.; García, A.; Pringle, R. M.; Palmer, T. M. (2015): 'Accelerated modern human-induced species losses: Entering the sixth mass extinction', *Science Advances* 1(5), e1400253.
- Cuomo, C. J. (1998): *Feminism and Ecological Communities. An Ethic of Flourishing*, Londres eta New York, Routledge.
- Elías, C. (2021): *El Intermedio* (www.youtube.com/watch?v=UjOdgCpX-7A).
- Faria, C. (2016): 'La lucha por la igualdad y la justicia es necesariamente feminista y antiespecista', *Diagonal*, 2016-11-04 (www.diagonalperidico.net/global/29972-lo-personal-es-politico-feminismo-y-antiespecismo.html).
- (2017): 'Ardura moralá zor zaie izaki sentikorrei', *Berria*, 2017-02-16 (www.berria.eus/paperekoa/1845/040/001/2017-02-16/ardura-morala-zor-zaie-izaki-sentikorrei.htm).
- Federici, S. (2012): *Revolution at Point Zero. Housework, Reproduction and Feminist Struggle*, Oakland, PM Press.
- Fisher, B.; Tronto, J. (1990): 'Toward a Feminist Theory of Caring', in E. K. Abel eta M. K. Nelson (argk.): *Circles of Care. Work and Identity in Women's Lives*, Albany, State University of New York Press, 35-54.
- Haraway, D. J. (1991): *Simians, Cyborgs and Women. The Reinvention of Nature*, New York, Routledge.
- (2003): *The Companion Species Manifesto. Dogs, People, and Significant Otherness*, Chicago, Prickly Paradigm Press.
- (2008): *When Species Meet*, Minneapolis, University of Minnesota Press.
- (2016a): *Staying with the Trouble. Making Kin in the Chthulucene*, Durham, Duke University Press.
- (2016b): *Manifestly Haraway*, Minneapolis, University of Minnesota Press.
- Herrero, Y. (2016): 'Economía feminista y economía ecológica, el diálogo necesario y urgente', *Revista de Economía Crítica* 22, 144-161.

- Horta, O. (2010): 'Debunking the Idyllic View of Natural Processes: Population Dynamics and Suffering in the Wild', *Telos. Revista Iberoamericana de Estudios Utilitaristas* 17(1), 73-90.
- (2015): 'The Problem of Evil in Nature: Evolutionary Bases of the Prevalence of Disvalue', *Relations. Beyond Anthropocentrism* 3(1), 17-32. doi:10.7358/rela-2015-001-hort
- Kolbert, E. (2014): *The Sixth Extinction. An Unnatural History*, New York, Henry Holt and Company.
- Nazio Batuen Erakundea (2018): 'Se necesitarán 210 años para alcanzar la paridad en los cuidados domésticos', *Noticias ONU*, 2018-06-28 (<https://news.un.org/es/story/2018/06/1436912>).
- Paez, E. (2015): 'Refusing Help and Inflicting Harm. A Critique of the Environmentalist View', *Relations. Beyond Anthropocentrism* 3(2), 165-178. doi:10.7358/rela-2015-002-paez
- Parenti, C. (2017): 'La convergencia catastrófica: militarismo, neoliberalismo y cambio climático', in Buxton eta Hayes (argk.) (2017), 49-68.
- Pérez Orozco, A. (2014): *Subversión feminista de la economía. Aportes para un debate sobre el conflicto capital-vida*, Madril, Traficantes de Sueños.
- Puig de la Bellacasa, M. (2017): *Matters of Care. Speculative Ethics in More than Human Worlds*, Minneapolis, University of Minnesota Press.
- The Care Collective (2020): *The Care Manifesto. The Politics of Interdependence*, Londres eta New York, Verso.
- Torres, S. (2021): 'La amistad como modo de vida: una cultura de las amigas-amantes', *El Salto*, 2021-03-05 (www.elsaltodiario.com/el-ru-mor-de-las-multitudes/amistad-modo-vida-cultura-amigas-amantes).

Filmografía

- Canals, S.; Cragg, N.; Horder-Payton, G.; Howard, S.; Livingston, J.; Mabry, T.; Mock, J.; Murphy, R. (zuz.) (2018-2021): *Pose*, Ameriketako Estatu Batuak, Color Force, Brad Falchuk Teley-Vision, Ryan Murphy Television, Touchstone Television eta FXP.
- Kelm, D. (zuz.) (2020): *Mães do Derick*, Brasil, Haver Filmes.